

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LANTENOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

#### Baso aprobetxamendu baten enkante publikoa

Llantenoko Administrazio Batzarrak 2014ko urriaren 5eko kontzeju bileran hartutako erabakiaren bidez eta Arabako Foru Aldundiaren beharrezko baimenarekin, baso aprobetxamendu honen enkante publikoa iragartzen da:

1. Erakunde esleitzaila, kontratuaren xedea eta lizitazio oinarria.

Llantenoko Administrazio Batzarra:

– 1 zenbakiko lotea: Udote eta Abiega (auzotarrekin partzuergoan), OPko 752 mendia; 1.437 *intsinis pinu*; 944,35 metro kubo zur eta 252,86 estereo.

Arraseko mozketa bidezko aprobetxamendua.

– 2 zenbakiko lotea: Bardojaran (Papresa SArekin partzuergoan), OPko 752 mendia; 4.945 *intsinis pinu*; 6.716,76 metro kubo zur eta 511,75 estereo.

Arraseko mozketa bidezko aprobetxamendua.

2. Izapidetzea, prozedura eta esleitzeko era.

Izapidetzea: arrunta.

Prozedura: irekia.

Esleitzeko era: enkante publikoa.

3. Lizitazio oinarria:

– 1 lotea: 43.945,32 euro (BEZa aparte)

– 2 zenbakiko lotea: 331.051,37 euro (BEZa aparte; enkantean jarritako lotearen ehuneko 40 kobratuko da ehuneko 21eko BEZarekin, eta gainerakoa dagokion BEZarekin).

4. Behin-behineko eta behin betiko bermeak:

Behin-behinekoa: lote bakoitzerako, aprobetxamendu guztiaren ehuneko 3.

Behin betikoa: lote bakoitzerako, enkanteko prezioaren ehuneko 5.

5. Ordaintzeko era: administrazio batzarrarekin negoziatuko da ordaintzeko era, baina mozketa hasi aurretik amaierako guztiaren ehuneko 100 ordainduta egongo da.

6. Aprobetxamendu epea: 2016ko abenduaren 31ra arte.

7. Iragarkiaren gastuak: esleipendunak ordainduko ditu.

8. Agiriak eta lizitazio baldintzei buruzko argibideak eskuratzeko:

Aiarako Udala (Elizako auzoa 2, 01476 Arespalditza; telefonoa: 945 399013; faxa: 945 399331; info@aiarakoudala.eus), astelehenetik ostiralera, 09:30etik 14:00etara, iragarkia ALHAOn argitaratzen den egunaren hurrengotik aurrera eta eskaintzak aurkezteko epearen amaiera arte.

9. Eskaintzak aurkeztea:

1. Eskaintzak aurkezteko lekua eta eguna: eskaintzak, gutun azal itxian, Aiarako Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira, 09:30etik 14:00etara, astelehenetik ostiralera, hamabost eguneko epean, iragarkia ALHAOn argitaratzen den egunaren hurrengotik aurrera kontatuta. Eskaintzak aurkezteko epearen azken eguna larunbata edo egun baliogabea izanez gero, epea hurrengo egun balioduneko 14:00etara arte luzatuko da.

2. Eskaintza eredia eta aurkeztu beharreko agiriak: Lizitatzailleek administrazio klausula berezien eta baldintza tekniko eta ekonomikoen agirian aurreikusten den eskaintza ereduaren arabera aurkeztu beharko dituzte beren eskaintzak, eta bertan adierazten diren agiriak erantsi beharko dituzte. Agiri hori Aiarako udaletxean dago.

10. Eskaintzak irekitzea: Lantenoko Administrazio Batzarraren egoitzan, eskaintzak aurkezteko ezarritako epea bukatu eta hurrengo egun baliodunean (larunbatetan izan ezik), 20:00etan.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Lanteno, 2016ko uztailaren 18a

*Jarduneko lehendakaria*

*JON ANDER ALONSO UDAETA*